

## ELIZAMBURU NEURTITZLARI

Sara, 1991-XII-20

J. B. Orpustan

### Sarrera. Hiztegi eta arotegi

Neurtitzlaritzaren, olerkaritzaren “teknikako” xehetasunetan sartzea gauza idor bezala ager daiteke gehienetan, eta hemen ere dudarik gabe; bietan, erran nezake, mugabide batzu behar direnean hastapenetik eman, orok gauza berak entzun ditzaten hemen aipatuko direnatan, ezti-relakotz oraino, euskal kritika literarioan (eta bertze zenbaitetan ere...), hitzak ez gauzak berdin entzuten. Hiztegiko azterketa labur zenbaiten ondotik, ezarriko dira Elizambururen hamalau kantu ezagutuak —baztertuz gaztaroan Adema-rekin izenpetu zuen bat edo bertze— aro zerrenda batean, uste baitut aro muga hauek ekar dezaketela argi zenbait, guti bada guti, olerkien egin moldeari.

1. Handienetik ttipienetarat jautsiz, erran nahi dut neurritz eta itxura ageriaz, huna hemen aipatzen diren hitzen erran-nahiak;

*ber(t)sua*: (Elizambururen esku-idazkietan: “**bersua**”, oraiko afrikatuarekin baino arinago, ene ustez) erdaraz “*la strophe*”, edo neurtitz multzoa, errimek egituratua;

*neurtitza*: Oihenartek lehenbizikorik erabili zuen hitza (eta menturaz moldatu, ezagutzen denaz), ezpadugu ere guk, hark bezala, hitz eta silaben luzetasuna “neurtzen”, baina bakarrik neurtitzarena, “*le vers*”; neurtitza, olerkaritza klasiko edozeinetan (eta XIX-garren mendea alde hortarik “klasiko” gelditzen da), *errimak* edo *asonanzak* du egiten eta mugatzen; eztitugu nahasiko *neurtitza* eta *lerroa*, neurtitzak moztuz lerrotatu baitira arrazoin ainitzen gatik lehenago (adibidez: *hirueko ezberdina* edo “*kopla zaharra*” ardura laueko “falsuetan”, baina ere, Bernat Etxeparek bezala, “bieko” edo “*diztiko*” berdin falsuetan...; egiazko lauekoak, lau errimadunak, ainitzetan “zortziko” berdin falsuetan...), eta berantago ere (baditugu Elizambururen eskutik beretik...); hitza hitz, lerroa lerro, naurtitza neurtitz, neurtitz-erdia edo “*hemiztikioa*” berdin...

lauekoa, seikoa, zortzikoa edo hamabikoa: izen hauek bertsua dute erraiten eta aldi berean neurtitz-errimen zenbakia;

**errima** eta **asonanza** berexten dira ahots edo “fonema” neurtitz bate-tik bertzera berdinen zenbakitik, jakinez *bokal bat* bederen behar dela berdinek, eta hau neurtitzeko azkena: orduan da **asonanza** xoilak (guti baderabilia ere Elizamburuk, ainitz aldiz haren aitzineko Etxahunek...); bokalaren ondotik edo aitzinetik aski da konsonante bakar bat *errimaren* egiteko, hobe bokala delarik, orduan errima bi silabetara hel baititake: ahots eta silaba berdinen zenbakiak emaiten du errimaren “aberastasuna”;

*silaba* gelditzen da, azkenik, neurtitzaren oinarria; silaba, zenbaitek izendatu dute “pikoa”, Elizamburuk “pontua”, batzuek ere, gaizkiago, “zangoa” edo “oina”, olerkietan egiazko zango edo oina silaba multzo batek egiten baitu; jakina da ezuela beti neurri bera atxikitzen neurtitze-tan bokalek elgar hunkitzen dutenean, hitz barnean (“*diptongoa*”) edo hitz azken-hastapenetan (“*hiatoa*”); barneko bokalek *bi* silaba egiten dituztenean da *dieresia*, bat egiten dutenean *sineresia*, eta bada hor “lizentzia” zenbaiten lekua, olerkari batzuek baliatzen badakitena, gutiago eta hobe bada ere; azken-hastapenekoetan, azken bokala ezaba daiteke, eginez **elisioa**, edo hastapenekoarekin silaba batean ahozkatuz, **sinalefa**; badakigu Oihenartek ziola elisio eta sinalefak beharrezkoak zirela euskal olerkaritzan; baina guti zazko hortan jarraiki eta Elizamburu, menturaz gutienik, eta ageri da zertako bazituzten biek, ene ustez, arrazoin onak: baten kantuan (berak zioen Sarako moduan “*kantau*” egituratzen bai-tzuen bertsua, eta bertzeak ez;

*neurkada* (Lafitte-Tournieren hiztegian hartzen dutan hitz hau “errimo” erdalduna baino hobea iduritzen zait) gauza ainitzek dute osatzen: duten euskalkietan, akzentuak, silaba eta hitzen multzoek (zortzi silaba lau eta lau gehienetan, bederatzi bortz eta lau...); beharrena da, neurtitz luzetan (zortzi silabaz goiti), neurtitz-erdiko *hauste* edo *gelditzea*, uzten duela ardura bigarren zatia silaba batez laburrago (7 eta 6 hamahiruekoa, 8 eta 7 hamabortzekoa...), laburtasun hori ordaintzen baitu aireko edo aire zatiko azken notaren luzetasunak (musikan “*kadenzia*”): huntarik ageriko da neurtitzaren neurkada aireak duela egituratzen, eta hau bere-ziki egia da Elizambururentzat; aipa dezadan bakarrik, nahiz ezten gure olerkariak behin ere kasik erabili, Oihenartek hain ohi zuen neurtitz batetik bertzerako *lotura* edo *jauzia* (“*enjambement, rejet...*” erdaraz);

*apaindura* edo **estilo-irudiak** (edozein mailetan) sartzen dira oraino olerkaritzan, nahi den idaz-moldetan bezala; zenbait bizkitartean ageriago neurtitzetan: soinu errepika edo *aliterazio*, barneko errima, errima-oiharzun... eta bereziki “*kiasmoa*” edo hitzen *gurutzadura*: Elizamburuk baditu zen-bait aski ohargarriak.

2. Arotegiaren aldetik, eta hortaz jadanik ezagunak direner jarraikiz gehienez, erran nahi baita bederen agertu edo egin diren urteak, Elizambururen 14 olerkiak berex daitezke bi multzotan, 1870 urtearen bi aldetarik, azpimarratu gabe hemen gehiago zer haustea izan den urte hori Elizambururen bizian:

### 1870-a aitzin:

*Infirmieran* (14 laueko, 56 neurtitz): bada aski arrazoin kantu hunen jartzeko gaztetasunean, armadako lehenbiziko urtetan, Adhemaren aipatzeaz gaindi ere;

*Gazte hiltzera dohana* (10 laueko, 40 neurtitz: Antonio Maria Labayenek emaiten du 11-garren bertsu bat): 1860;

*Apecha eta Lorea* (12 laueko, 48 neurtitz): 1862;

*Agur Herriari!* (11 laueko, 44 neurtitz): 1862;

*Nere Etchea edo Laboraria* (10 zazpiko: 70 neurtitz): 1862;

*Maria* (8 seiko: 48 neurtitz): 1866-ko agorrilean egina ("Août 1866" dio esku-idazki batek);

*Chori berri-ketaria* (8 laueko, 32 neurtitz): 1869.

### 1870-aren ondotik:

*Biba Francia!* (zortziko bat, eta ez lauekoa, kantua bururatu-eta berriz egiten dena, egilearen nahiaz, eta 3 laueko, 20 neurtitz): 1875 urte ingurukoa, "urte guti du" dio bigarren bersuak 1870-eko gerlaz, eta kantua errepublikaren sortzeko eztabada politikoer lot daiteke;

*Lehen eta Orai* (10 zortziko, 80 neurtitz): 1879;

*Aingeru bati* (4 hamabiko, 48 neurtitz): 1880;

*Eskuara eta Eskualdunac* (10 laueko, 40 neurtitz): 1880;

*Zapataina (edo Gizon zuhurra)* (10 laueko, 40 neurtitz): 1882;

*Lau andren besta (Amets bat)* (14 bortzeko, 70 neurtitz): iduri luke, Elizamburuk egina baldin bada, itxura guzien araura, baduela zer ikus *Piarres Adame*-ren tematikarekin (herriko besta, omore ona eta irrigarritasuna, trufa ere...): 1882;

*Maite zaitut* (6 zortziko. 48 neurtitz): 1885.

Neurtziketa “xuhur” horrek, ez osoki sei ehun neurtitz orotara (585), erakusten badu lana eta artazko edergintza —horrelako zerbait agertu nahi bainuke bederen—, biziaren bi ixurkiek ekartzen daukute zazpirana olerki, “simetria” osoan.

Ikertuko ditugu orai bertsu-motak, errimak eta neurtitzaren neurria (edo silaben zenbakia), erran-aldiaren egitura gramatikazkoa (berezikiago hitzen jarraipena) neurtitzean, apaindura zenbait azkenik.

\* \* \*

## I. “Bertsularia” eta motak

Hamalau olerkietan, Elizamburuk erabili ditu, ezberdintasun handie-  
nean, hameka bertsu mota (hamabi konduan hartuz *Biba Francia*-ren  
lehen bertsuak, zortziko bakuna: ikus beherago): lauekoa zortzi aldiz (eta  
hetan lau aldiz molde bakar bat), zortzikoak bi aldiz, eta aldi bakar batez  
zazpikoa, seikoa, bortzekoa eta hamabikoa. Ikusiko den bezala xehekiago,  
hamalau kantuetan hamabiek errima bakuna dute, eta berehala ageri da  
eztela gure olerkaria egitura aldaketan behar baino gehiago —gutiago  
erran ginezake...!— ibili. Hizki nagusi bat emanez ezagugarri, holaxet  
ditugu:

*A1: laueko artekoa (13 sil.: 7+6), errima bakuna: Infirmierian, Gazte  
hiltzera dohana, Apexa eta Lorea, Agur herriari: bertsu ohitu hortan,  
ohituena haren aroan, eman ditu Elizamburuk lehenbiziko lau kantuak.*

*A1: laueko handi “lehena” (15 sil.: 8+7), bakuna: Zapataina, egileak  
Piarres Adame-n “aire zahar hamahiru pontuko” bezala emaiten badu ere,  
huts eginez; eta berdin, baina zuzen aldi huntan, Piarres-ek hirur “gra-  
zia” latsarier igortzen duen lauekoa (hirugarren kapituluan).*

*A2: laueko handi “bigarrena” (lehen hirur neurtitzek 16 sil.: 8+8;  
azkenak 17 sil.: 9+8), beraz ezberdina, eta bakuna: Chori berri-ketaria.*

*A3: laueko handi “hirugarrena” (16 sil.: 9+7), berdina eta bakuna:  
Eskuara eta Eskualdunac (“neurtitz-erdiak” bi silabek dituzte aldi bekar  
huntan ezberdintzen: erran gabe doa Elizamburuk hautatu airearen zatiek  
dituzten “noten” zenbakitik —nota bezenbat silaba, gehienetan gertatzen  
den bezala— datorrela egitura arraro hau).*

*A4: laueko luzea (20 sil.: 10+10, neurtitz erdia 5+5), bakuna: Biba  
Francia-ren hiru edo lau bertsuak; baina nahiz lauetan lerrokatua, lehen  
bertsuak baditu zortzi errima berdina, eta errepikatu behar da azkenean,  
bademala orduan olerkiari itxura simetrikoko bat. Erran behar dea *Andre  
adalen*-en aire ezin ezagunagoak duela bertsu hau egituratzen?*

[B1: zortziko berdina eta bakuna (10 sil.: 5+5): molde hortako bertsu bakarra aipatu den hori da, hortakotz emaiten da gakotxetan].

B: zortziko zuzena (8-7-8-7-8-7-8-7), aldizkatua (“rimes alternées”): Maite zaitut.

B2: zortziko ezberdina (12-12-12-12/6-6-6-12: 12ak 7+5), bakuna: Lehen eta Orai; zortziko ezberdina bertsu erabilienetarik da, bereziki Etxahunek (ez silaba kondu berean bizkitartean).

C: zazpiko “simetrikoa”, errima bakuna (8-8-8-18-8-8-8): Nere Etchea: lerrokatze ohituak eztu aski agertzen Elizabururen “kantu nazionala” bezalako zerbait bilakatu denaren egitura ohargarria. Nundik hunen airea?

D: seiko ezberdina (12-12-5-12-5-12: 12ak 7+5), bakuna: Maria, Elizaburuk erabili dituen airetarik arinenean (3/8 neurrian).

E: bortzeko “simetrikoa” (10-10-20-11-11: 20ak 3+5+5+7; 10ak 5+5), bakuna: Lau andren besta.

F: hamabiko ezberdina (azken neurtitzetan errepika labur eta aldakorarekin: 9-10-9-10/9-9/9-10-9-10/8-12), aldizkatu eta jarraikia (abab cc dede ee: errimen egiturak erakusten ditu laueko-biekoak aldizkatuak, bortz errimetan): badira Elizabururen aroko olerkarietan molde huntako bertsu batzunik erabili dituztenetarik (ikus, adibidez, Otxalde-ren *Bidarraitarra*), nehor, ezagutuetan bederen, hoin urrun joan denik egituraren lantzean.

Ondorio labur zenbait atera nahi bada, ohar daiteke 1) “laueko arteko” ohitua (hamahiru silaba) utzi dela laugarren kantuarekin, beraz egitura aldatu dela gero-ta-gehiago; 2) biziko bigarren zatian direla egin errima bakuna bazterten duten bi olerki bakarrak, eta biak maitasunezkoak direla; 3) orotako arraroena, “preziosena”, sendimenduetan egituraren bezenbat, eta hortakotz bertsu gutienik duena (4), gelditzen dela *Aingeru bati*; 4) bertsuaren luzetasuna, neurtitzen zenbaki edo luzetasunaren ondorioz, ordaintzen duela bertzuen zenbakiak beiak: oraite zentut (6), *Biba Francia* (4, lehena errepikatuz bortz), *Aingeru bati* (4); 5) azkenik, eta horiek baztertuz, zortzi eta hamabi bertsuaren artean dela Elizabururen “neurri berezia”, berdintasun handian beraz.

Bainan, erregularik ezpaita berexkunderik gabe, hamalau bertsutaraino heldu zauku bietan: *Infirmierian* eta *Lau andren besta*, gaztean eta zaharrea beraz, eta ere utzi dituen bi kantu irriarrietan, “zatirikoe-tan”; sendimendu serioak, izan dadin maitasuna, herrikoitasuna, mende-kioa ala zuhurtzia, eztu hatsa laburrago, bainan ba egituratzen den gauza eztekoa bilduago, eta hitz batez erraiteko, “neurtuago”.

## II. Errima eta silaben jokoia

Neurri beretik, “bien-artekotasun” filosofiko zahar hortarik, deliberratu iduri baitzait, ezkira urrunduko egitura xeheagoetan sartuz.

1. *Errimaren aldetik*, errima **bakuna** dela erran da hamalauetarik hama-bi aldiz, bersulari zaharren moldean (ikus Etxahun...). Bizkitartean ezagutu dituzke Larresoron bere aitzineko aphez “jakintsunen” ohidurak: edo Monho, edo, hurbilago, 1842-an, Elizamburu Larresoron zenean hil zen Camoussarry ziburutarrarenak, huni hartu dukeelarik alta *Gazte hiltzera dohana*-ren gai erromantikoa... Hunek, hogoi bat olerkietan, hamar bertsu moldetan bederen, errima aldizkatuak edo jarraikiak zerabiltzan; eztu bi aldiz baino gehiago emaiten errima bakuna (badituelarik zazpi laueko mota...). Hautuzkoa iduritzen zaukun xoiltasun guti baztertu horrek, baduke bere balioa, bereziki kantuarentzat, Elizamburu eta haren inguru-ko olerkarien baitan (Dibarrart, Otxalde, ala Iparraguirre...).

Aldiz, eta hortan Etxahun batetarik urrun dago, **asonanza** hutsa biziki guti aurkitzen da, gehiago gaztaroko olerkietan: hiru aldiz *Infirmerian* (-i -o eta -a: azken hau xixtukari ts- eta z-ren ondotik, Oihenartek berak onhartzen zuen lizenzia...; olerki hunek badu bertze “lizenzia” bat ere: bi errima lehen bertsuak, eta bigarrena ahozko fonetikan “*maitia/handia*”, berriz gertatuko ezten gauza), bi aldiz *Gazte hiltzera dohan-ean* (-e, eta -a jadanik aipatu den gainerateko bertsuak), bat *Apecha eta Lorea*-an: -i, -di/-ri silaba ohitu eta fonetikaz elgarretarik biziki hurbiletan. Hau bera aurki daiteke oraino *Aingeru bati*-etan (-ri/-bi: egitura aberatsak ezeztatzen du, azken neurtitz errepikatuetan); eta berdin -i (“*atrebi*” hitz bera hemen ere: Elizambururen gostuko hitza, iduriz...), eta bigarrenik -u *Maite zaitut*-etan; -i ere *Lau andren bestan* (bigarren bertsuak).

Egiazko **errimek** badadukate nagusitasun osoa Elizambururen olerkietan, nahiz eztuen beldurrik gramatikaz mota bereko hitzen errimatze-ko, aditzetan edo deklinabidean: eztitu beraz Lafittek zion bezain “ahul” aurkitzen horrelako errimak (ikus *Koblariaren legea*).

Lerrokatzen ditugu hemen ahots aberastasunetik, eta errima multzoen edo errima bakoitzak egiten dituen **bertsuen** zenbaki orokorra (beraz gutienik bi errima batean, bainan beti kasik llau edo lauez goiti) ahal bezain zuzen emanez:

a) *Silaba bat edo gutiago* (Oihenartek ahulak eta eskasak zaduzkan horrelako euskal errimak):

.bi ahots:

10 -en, 8 -ik, 3 -an, 3 -in, 2 -ez, 2 -tu;

bakoitzak multzo edo bertsu bat: -ak, -au, -za, -ur, -tza, -(t)zu, -ko;

*.hirur ahots:*

multzo edo bertsu *bat*: *-tzen, -tan, -dut, -tzat, -tik.*

*b) Silaba batez goiti (Oihenarten euskal errima zuzenak):*

*.bi ahots:*

*16 -ia, 10 -ea, 5 -ua, 3 -oa;*

*.hirur ahots:*

*21 -ean (Elizambururen errima usuena), 4 -eak, 3 -uan, 3 -ena, 3 -ala, 2 -ura, 2 -era, 2 -iak, 2 -ila, 2 -ian, 2 -itu, 2 -oak;*

multzo edo bertsu *bat*: *-uko, -ola, -ina, -iez, -ago, -ari, -uen, -ela, -una, -rea, -urra;*

*.laur ahots:*

bi aldiz *-tzean*; aldi bat: *-etan, -aite, -urrak, -enak, -ikotz, -urda, -erua* (azken hunek hartzen ditu bi silabaz goiti eta gertatzen da, ezpadugu huts egiten, Elizambururen errimarik beharrira luzeena eta aberatsena).

Errima mota usuena, ezta huntan harritzekorik, azken bokalduna da, **-a** gehienetan: zenbakatu ditugu orotarat **57** (berrogei-ta-hamazazpi) bat multzo edo bertsu. Bigarrenik heldu dira sudurkaritik bururatu multzoak: **50** (berrogei-ta-hamar) hurbil. Bi zenbaki hauek, uste dut, erakusterat emaiten dute Elizambururen, eta ere euskal kantu gehien argitasun ozena alde batetik, baina oraino, konsonante sudurkariak beharirats emaiten duen ez-titasuna. Sendimendu hau azkartzen da, ohartuz herskari gogorrek (**-k** eta **-t**) ez-tutela orotara erdia egiten: **22** multzo edo bertsu.

*2.Silabetaz*, biziki gauza guti gelditzen da erraiteko, hain da Elizambururen silaba jokoa lizenzia edo ezberdintasun gutikoa, erran nahi baita, lehen lehenik, ohi gabeko sinesia edo dieresia, elisio eta sinalefari-etzuela erabili, edo ezin gutiago. Ezagutua da bada alde hortarik libe-rtate handia Etxahun baten neurtitzetan; baina bada ere Elizambururen- tan baino biziki gehiago Iparraguirre edo Otxalderenetan.

Eztugu lizenzietan sartzen **haitz** silaba bakuna biekoaren (**haritz**) orde (*Agur Herriari, Nere Etchea...*): oraino Iparraldeko euskalki gehi-entan erabiltzen den forma "higatua" sortua zen jadanik; berdin agertzen da, adibidez, Zalduby (Adhema)-ren neurtitzetan eta bertze. Aldiz ezta deus uste-gabekorik, elisio eta silaba laburpenak lehenbiziko kantuan badaude abantzu denak:

*Infirmerian...: "mafrundi ta...; mement'hartan"*: bi elisio, lehena zen- bait idatz-molde eta euskalkietan aski arrunta (nahiz berenaz lehenbiziko bokalaren ezeztatzea gauza arraroa den) bigarrena ausarta eta ez haizua, zuzenez, hatskatu baten aitzinean; "eiten" sinesian, *egiten*-en orde:

ahozko erran moldea, bainan berriz menturatuko ezteua; “*pasatu tut*”: ohar bera egin daiteke, nahiz Oihenartek erabiltzen duen zenbaitetan laguntzaile laburtu hori; “*goitikoan... beheitikoan...*”: bi sineresia, o “*W*” erdi-konsonanteratuz, ahozko molde ohituan. Gaztoroko bekatu, ala kantu horren estilo jostakinaren apaindura?

Berantagoko kantuetan, ez tute aurkitu sinalefa eta elisio bakar zenbait baizik: *Biba Francia*-n “*bere-ohatzean*” sinalefa, esku-idazkian emana da gainera marra ttipi batekin. Elisioa da aldiz *Maite zaitut*-etan: “*hal’eta hola*” (aitzinean aipatuaren araura, behar ginukeen “hala ta...”). Ez ote daiteke hemen sendi, gaian berean nola joko poetikoan, Oihenarten orroitzapen zenbait, Elizamburuk ezagutzen baitzukeen Francisque-Michel eta Archu-ren argitalpena? Elisioa ere *Zapataina*-ren lehen bertsuan: “*mundur’agertu*”.

\* \* \*

### III. Erranaldia eta neurtitza

Silaben zenbaki zuzenak, neurtitz mota bakoitzaren neurkada eta neurri-haustek, errimak, beti hertsatu dute olerkaria. Hortarik dator segurki “estilo poetikoa” deitzen denaren berezitasun agerienetarik bat: erranaldiaren egitura zuzenaren, edo hitzen jarraipenaren guti edo aski aldatzea. Eta euskararen egitura, hizkuntza deklinabidedun guziena bezala, frango libroa bada hitzen jarraipenean, ez ordea osoki. Oihenart batek du ereman urrunenik erranaldiaren egituraren libertate hori, urrunegi zenbait aldiz (badira urrunago ereman dutenak, frantsesean berean: Mallarmé lekuko...).

Elizambururen erranaldia, haren aroko bertze kantu egile ainitzena bezala, ausartzia gutikoa agertzen da gai hortan. Hemen, lehenagoko Bernat Etxepareren, eta “bertsularitza”-ren heinean dago:

1)alde batetik, neurtitzak badaduka beti batasun gramatikala (eta hortakotz etzen batere pondurik emaiten Etxepareren aroan, salbu bertsu buruan...), erranaldiak, erranaldi oso edo nagusi (“propositiron principale”) ala menperatu (“proposition subordonnée”), ala egituraren beheagoko edozein hitz multzok betetzen baitu, airearen haustek, neurtitzak eta errimak bat eginez orduan (eta hortakotz ezta Oihenarten estiloan hain usu ziren lotura eta jauzirik neurtitz batetik bertzera...): *Lehen eta Orai*-en neurtitz laburretan, ohi den bezala (bainan Elizambururen neurtitza ardura luzea da), ikus daiteke lotura zenbait, guti ohargarri bizkitartean:

...injuztizia

*Ikharagarria!* (izena eta izen-laguna)

...zituan

*Bizi...* (aditz laguntzaile eta partizipio);



2)bertzetik, hitzak eta hitz multzoak guti dira lekuz aldatzen. Aldaketa horietaz eman daitezkeen adibidetan, huna zenbait: aditz laguntzaile eta partizipioaren artekoa da usuenik:

*"Hainitz dut nik lurtean izan atsekabe...  
agian lorea du kausitu... (ezta "fokalizatzerik")  
yaten ez zituztela...  
othe duk huts eginen?  
dudan bezala hasia...";*

izen ala aditzaren osagailuen lekuz aldatze edo elgarretarik berexreak usuago dira:

*"...ametsen ez bainintzan lotsa...  
Hainitz (...) atsekabe (ikus gorago)...  
zer diren ez dut yakin etcheko gozoak...  
esnez hampatu ditiak...  
darozkitzut eskerrak bihurtzen...  
badu berea, /Udan eta neguan lorez bethea, /Errekarte...  
zertako den aberats horra Maria!  
non pausa erhia...  
aita baten ez ziren semeak...  
Yainkoak maitha dezagun erran baitu laguna...  
zer hegal pean dute..."*

Morfologian ere, gehienik mugatzailetan, eta hau menturaz egintza ausartagoa, idazlea bera baldinbada ere, aski on eta jakintsun denean, hizkuntzaren nagusi, gerta daiteke berezitasun zenbait, osagailuen lekuz aldatzearen edo urruntzearen ondorioz. Gramatikalarri modernoak ezagutu gabe, olerkariak bazakikeen zerbait euskararen "*polimorfismoaz...*":

*"...berea (...) errekartea (bi aldiz mugatzailea: ikus gorago), zelaiera (= zelaira; eta aldiz: "biharamunan", *Infirmerian*), bera da pullitena hango lorea..."*

*egon leku berea (errimak duke aldatu behar laitekeen bera: ikus gorago "zelaiera"),*

*aitena/Duk obra lehena...*

*gathe zakharkena (erlatibo lotua azkenik eta mugaturik: "zakharken gathe: la chaîne qu'il devait porter"),*

*Oi mila debrua... Mila sorgina (mila-rekin behar ginuke sorgin edo sorginak).*

Aditzetan, salbu euskaraz hain ohi den laguntzailearen itzaltzea (ezti-tugu adibideak hortakotz emaiten), *Infirmerian*-etan \***edin**-en ahalezkoa

agertzen da: “*izan daikena*” (bederen A.M. Labayen-en bilduman), *daite*-ren orde. *Maite zaitut*-etan berriz “*zuk ni nauzun erradazu*” kompleti-boan, *-la*-ren orde. Gaztaroko lan ala estilo arin, hor dira Elizambururen gramatikako lizenzia handienak.

Bilboko kongresuan edo biltzarrean gauza jadanik erakutsia izan baita, ez tut hemen xehekiago erranen nola Elizambururen neurtitzetan agertzen den, *Piarres Adame* edo bertze idazki laxoetan baino gehiago, *aditz-izenaren osagailua nominatiboan*: ezberdintasun hori neurtitzlaritzaren ondorioa baita, eta aspaldidanik ezagutua Bernat Etxeparetik hasiz, egiazko *lizenzia poetikoetan* sartzen dugu, Elizambururen aroan eta beraren hitz-laxoan aurkitzen ez tiren egitura guzietan.

Orotarat, Elizambururen hizkuntza poetikoa guti eta laburzki baztertzen da hizkuntza arruntetik, eta gehienetan aldaketa horiek ezeztatzen dira neurtitzaren soinu eta neurkada argi eta ozenetan, eta, beraz, neurtitz-bertsuetarik ezin berex daitekeen airean. Urrunago joan gaitzke: ainitzetan neurtitzaren eta bertsuaren apaindurer esku emaiten dute.

\* \* \*

#### IV. Apainduretz

Gai zabal huntan, muga hertsietan geldituko gira: neurtitzlaritza osoa berenaz erretorika hutsekoa delakotz, eta, ikuspegi orotarik, erretorikak hartzen duelakotz; eta beraz hemen aipatu diren gauzak oro edergintzako, ezetikako gauzak direlakotz azkenean. Bi gauza bakarrik aipatuz, bururatzeko, hitz errepika eta gurutzadura, nahi nuke erakutsi neurtitz egitea joko bat baldin bada egiazki, hitzen artean eta hitzekin egiten dena, ez tela joko hutsean gelditzen, entzun-arazten baititu, aldi berean, gogoia eta sendimendua.

1. *Gurutzadura* (edo “kiasmoa”) hitzetako estilo apaindura edo irudi ohienetarik izanez, eluke hemen azpimarratua izaiteko arrazoinik biziki. Alta badirudi Elizamburuk gustu edo ixuri zenbait ukan duela “sime-triazko” itxura hortarat. Jakina da baduela zer ikus, ondorioaz bederen, aitzinean aipatu den hitzen lekuz aldatzearekin alde batetik (beraz neurtitzetako gramatikarekin), eta, hortakotz, errimaren moldatzearekin zenbait aldiz. Jakina oraino hitz (edo hitz multzo, edo ere ahots eta soinu) gurutzatuak, kantuan entzuten diren baino hobeki, ikusten direla idazkian: nork uka, bizkitartean, begiak baduela, beharriak bezala, bere egitekoa literaturan eta olerkian? Ezpadira Elizambururen (eta bertze ainitzen) olerkiak delako *kaligrama* ezagutu hetarik, aski da behatzea zenbat gostuz, hitz eta hizki moldatzean, neurtitzen lerrokatzean bezenbat, egina den haren “eskulana”, esku-idazkia: begiek ikusteko, naski.

Horra hemen gurutzadura horietarik agerienak:

...*“Trixe du begia!*  
 ...*“Gaitza du handia!”*  
*Goiza pasatu eta ethorri eguerdi...(Infirmarian);*  
*Landako langilea, artzain mendikoa... (Agur Herriari);*  
*Golko bat aberatsa, lerden gerria... (Maria);*  
*Gizona gizonaren esklabo zuan,*  
 ...*Ba zuan bat errege...*  
 ...*batzu nagusi, esklabo bertzeak... (Lehen eta Orai);*  
*Mintzatu nahi, ezin mintza...*  
 ...*dautazu khendu(...)*khendu dautazu(...);  
*Lurra gizonen da lekhua:*  
*Aingeruena da zerua... (Aingeru bati);*  
 ...*Kantabreak mende zaharrenetan*  
*Gu orai gisa hedatuak...*  
*Erregerentzat on badire(...)*  
*Hobeago duk hiretako... (Eskuara eta Eskualdunak);*  
*Zilarrrik ez dutanean aski baitut kobrea... (Zapataina);*  
 ...*ni naiz mintzatu,*  
 ...*zu, mintza zaitte...*  
*Zuk ni nauzun erradazu*  
*Nik zu bezala maite (Maite zaitut: hemen paralelismo gramatikala*  
*josia da hitzen gurutzadurarekin);*  
 ...*horma xurgatuz biribildu muturra,*  
*Ez eta naski gorritu sudurra*  
*Milikatuz, milikatuz elhurra! (Lau andren besta).*

Azken hau hiru (eta ez bi) hitzen artean egiten da, paralelismo bati josia bada ere (*biribildu muturra/ gorritu sudurra*). Errima bera “paralelismo” hutsa da, beraz gurutzaduraren kontrako hitz irudia, eta paralelismo luzeagoak sortzen ditu. Ainitztazun arrunt horren gatik olerkietan, Elizambururenetan berdin, utziko da hemen gehiago aipatu gabe.

2.*Hitz-errepika* (ez bertsuena), gurutzaduren aurka, errextasun bat bezala har daiteke olerkietan. Elizamburu ezta hitz-errepikatzeaz xuhur izan: ahultzen ote du, horrek, neurtitzen balio edo edertasuna? Eztut uste, hitz-errepika horiek badutelakotz beti bere arrazoina.

Egin duen luzeena –hitz berak, bortz aldiz, neurtitz osoa betetzen du!– orok badakite: *“Ixil, ixil, ixil, ixil, ixila!”*. Lau andren mokokaldian bere lekuan da segurki.

Kantu irigarriena horrela apaintzen badu, gaiari doakon moldean, egiten du ere, egiazko “hitz musika” bat emanez airearekin batean, *Aingeru bati*-ren bertsu bakotxaren “erortean” (edo “kadenzian”), bainan

hemen aldatzeak sartuz eta hiru neurtitz-errimetara hedatuz, eta ezta segurki kantu apaindu horren apaindura ttipiena:

- 1....“hurbildik ezin atrebi!  
Hurbildik ezin atrebi!  
Hurbildu eta ez naiteke atrebi!
- 2.(...)Ordu berean maithatu nuen!  
Orduan maithatu nuen!  
Ondikotz! nik orduan maithatu nuen!!!
- 3.....dautazu khendu bakea?  
Zertako, nere maitea,  
Khendu dautazu bihotzetik bakea?
- 4.(...)Ez beha lurra! beha zazu  
Lurra ihesiz beha zerua!  
Ba! behautzu! aingerua!  
Ez beha lurra, beha zazu Zerua!!!

Kantu alai eta irrigarrienean alde batetik, erromantikoenean bertzetik, baina oraino han edo hemen bertze gehienetan: *Maria* azken hitza errima egile *Maria*-ren bertsu orotan (badu zer ikus hortan ere *Aingeru bat*-ekin...); berdin oraino, baina azken neurtitz osoan (*Nere maite Maria*), *Maite zaitut*-etan; eta *Biba Francia*-etan errepikatzen da lehen bertsu osoa, “errepika” (“refrain”) hitzaren erran nahi ezagutuenerat hurbiltzen girela orduan (bainan hurbiltzen bakarrik).

Hitz-errepika hutsaren ondorioa (eta helburua, olerkariaren gogoan, dudarik gabe), “patetismo”-aren emaita da gehienetan: gazteak hiltzera-koan “dramatikoki” dio jadanik: “*Ez, ez, ez nau izitzen ez herioak!*” Eta kantariak herriari: “*Agur! agur, herria! agur... agur...!*”; edo xori berriketariari: “*Mintza hakit... eta mintza... Mintza...!*”. Patetismoa “*ba(i)*” zenbait azkartzen duela oraino: “*...bortz aldiz..., Bai! bortz aldiz..., Atzar hadi, atzar bada..., orhoit hadi... Orhoit hadi ba zoria...*” Sendimendua azpimarraz, hitzerrepikak aberasten ditu neurkada eta soinua: “*Urrundik ikhusten dut, ikhusten mendia...*”.

Hitzak eztira orduan musikaren (airearen) osagailu xoilak, edo nahi bada bertze aldera, airea hitzena: “*prima la musica*” edo “*prime le parole*”; Italianoek XVIII-garreneko operan eztabadaten zuten moldean... Airea hautatzen zen, eta gero haren egituran (aire zatien silaba zenbakian, erran den bezala: eta ardura airea *lau* zatiek, bere *lau* “erortegelditze” edo “kadenziakin”, zuten osatzen), neurtitz eta bertsua(k) moldatzen. Hitzek badakarte soinua, musika, ez bakarrik airearena, baina, aldi berean berek egiten dutena, erran-nahiaren gainetik, edo (zertako ez?) hartaz bertzalde, baina, gehienetan, hura agertuz. Batasun handi eta hertsu hori da, ororen buruan, olerki-kantua. Hunek erran nahi du bertze gauza bat: azterketa “alderdi” gelditzen dela azkenean, ezpada ere

aire eta bertsuaren lotura berezi bezain bertsi hori, hemen egin den baino xehekiago eta hurbilago, erakusten. Agian, norbait aitzinatuko da, ere, sail hortan.

\* \* \*

Ororen buruan, agertzen da Elizamburu olerkigintzarat ekarri duten, eta neurtitzak moldatuz entzun-arazi dituen sendimendu eta gogoeten heinean, izan duen xede zinez eztekoa. Xede hori bete duela iduritzen zauku orai, mende baten buruan, eta hortakotz eztute galdu, Saratarraren kantuek, ez hunkigarri edo, bekanago menturaz, alaitasuna, ez ere balio literaturazkoa.

Hortakotz, Elizamburu eztugu ezarriko bertsulari xoilan lerroan, ez batere lerro hori behegia delakotz, bainan sobera ageri baita eztiela hemen “improbizazioneak”, bainan idazkian handizki artatu diren neurtitzak. Ezarriko ote da, bizkitartean, olerkari klasiko eta zinez jakintsunen artean? Hamaseigarren mendean balitz, eta Bernat Etxepare baten ondoan, menturaz... Bainan hemeretzigarrenean eta Oihenarten “edergintza poetikoa” ezagutuz geroz alde batetik, eta bertzetik Elizamburuk eztuelakotz bertsurik airerik gabe eta kantatzeko gabe (gauza ezina, segurki, Oihenarten olerkietan...) dakigunaz moldatu, beharko dugu ezarri ez kantari, bainan “kantulari erromantikoen” lerroan: Txomin Peillenek zioen bezala egun batez, erdaraz lehenago “chansonnier” deituko zen; Thibalt lehen, Nabarrako errege, eta XIII-garren mendean Frantziako olerkari handienetarik bati emaiten den izena, eloake gaizki, ere, Saratarrari.